



GetxoMeeting, apirilaren 6a: gure bezeroen esperientziaz arituko gara

Getxoko pertsona ekintzaileen eta enpresen arteko hamabosteroko topaketan kontaktuak nahiz sinergiak egin dituzte bertaratutakoek. Azken GetxoMeetingera pertsona ugari joan ziren eta askotariko taldea osatu zuten; ondorioz, harreman interesgarriak sortu ziren.

Bilera bakoitzera pertsona desberdinak joaten dira; hori dela eta, lehenik eta behin aurkezpen-txanda bat egiten dugu, enpresa nahiz horrek burutzen duen jarduera ezagutzera emateko, betiere bakoitzaren muina adierazten duen sormen handiko modu baten bitartez.

Saioaren lehen zatian, gure bezeroek enpresa bakoitzean izandako esperientzia nola ikusten dugun adierazi eta irudikatzen dugu, ondoren partekatze xedearekin. Hasiera batean, bezeroaren profil batean jarri genuen arreta; izan ere, gure ustez errazagoa izango zen prozesua irudikatzea pertsona-mota jakin batean kontzentratuz gero.

Parte-hartzaileek, enpresa bakoitzean bezero bat sartzen denetik fidelizazio- edo jarraipen-prozesura arte, darabiltzaten edo martxan jartzeko pentsatu dituzten tresnak zein ekintzak partekatu zituzten.

Prozesuko zatien barneko alderdi desberdinei buruz aritu ginen:

- hizkera behar bezala egokitzea xede diren bezeroentzako
- komunikazioa linean eta lineaz kanpo
- bezeroez gain azken erabiltzaileak sartzeko ere prozesuan
- giza harremana eta enpatia funtsezkoak dira gure bezeroekin harremanak ezartzeko orduan

Idea-aniztasun gehiena erakartze- eta fidelizazio-prozesuetan egon da batik bat, parte-hartzaileek tresna nahiz komunikabide desberdinak erabili baitituzte esperientzia positibo eta negatibo gisa.

Networking-kafea une lasaiagoa izan da; bertan, pertsona ekintzaileen eta enpresen arteko harremanak ezarri dira.

Saioaren bigarren zatian gure bezeroen lekuan jartzeko aukera izan genuen. Gauzak horrela, bertaratutakoek beste pertsona batzuek haien esperientzietan oinarrituz egindako ekarpenak eta *feedback*-a jaso izan ahal zuten, beren zerbitzuen erabiltzaile izango balira bezala.

Saioan ateratako ondorioen artean, honako hauek dira aipatzekoak: egin ziren kontaktuen kopurua eta aurrera egiten jarraitze aldera beste proiektu edo enpresa batzuentzako eskaini ziren ideia ugariak. Dinamika-mota horien bitartez, eztabaida desberdinak sor daitezke; horietan, kezkatzen gaituzten arazoak konpontzeko eta horiek partekatze modu sortzaileagoak topa ditzakegu.

Partekatze nahiz elkarlanean aritzeko espazio bat izateaz gain, topaketa-mota horietara doazen pertsonen artean "laguntzeko" grina dago ere bai. Giro ona sortzen da.

Hurrengo saioa apirilaren 27an —Aste Santuaren ostean— izango da, eta izena eman beharko da joan ahal izateko. Bi ostegunetik behin egiten den doako topaketa da.

Izena eman nahi baduzu, mezu bat idatz ezazu getxolan@getxo.eus helbide elektronikora, deitu 944660140 telefono-zenbakira edo joan zaitez Getxolanera (Getxo Elkartegia; Ogoño kalea, 1, Areetan).

Anima zaitetz! Etor zaitetz zure zalantzak nahiz esperientziak partekatzera, etengabeko ikasketan bizi gara.